

 www.muskiz.org

 /MuskizUdala

 @muskiz

 @muskizudala

MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 32. aldizkaria
2020ko urtarrila

BI-1640-2017 LG zk.

*Bi milioi
euro eta erdi,
inbertsio
berrietarako*

/5. orria



*Frontoiak
aldagela berriak
ditu*

/2. orria

*Aurrekontu
parte-
hartzaileak*

/3. orria

*Petronorrek
ibilgailu bat
eman dio Babes
Zibilari*

/4. orria

*Tenisa; kirol
minoritarioa,
baina izarra*

/6. orria

Editoriala

Aisiaren, osasunaren eta kirolaren aldeko apustua egin dugu Muskizen

Lana eginez, etengabe arituz eta eguneroko zereginetan laguntzen didaten pertsonen lankidetzari handiari esker, urtea amaitzerako bete ditugu hartutako konpromiso asko, eta Muskizek herri legez hazten jarraitzeko ilusioz jarraitzen dugu.

“***Urtea amaitzerako bete ditugu hartutako konpromiso asko***”

Gure giza taldeak lan handia egin du eta egiten ari da, Muskiz gero eta herri seguruagoa, irisgarriagoa, osasuntsuagoa eta herritar guztientzat atseginagoa izan dadin. 2019a amaitzera doa, eta, aurrean, osasunaren, kirolaren eta aisiaren aldeko apustua egin dugu; denon ongizatea izan dugu xede; 2020a hastera doa, eta konpromisoak betetzen jarraituko dugu, proiektu berrien alde apustu eginez. Muskiz urtero hobetzeko ahalegina handia izaten da, baina merezi du. Egia da bidean zailtasunak izaten direla, baina elkarriketaren, gardentasunaren eta, batez ere, lan askoren bidez saiatzen gara zailtasun horiei aurre egiten. Hori dela eta, mila esker orain arte eman dizazuen babesagatik.

Zorion agur goxo eta gertukoa helarazi nahi dizuet, eta onena opa dizuet, Gabonetarako etxeak apaindurik ditugun sasoi honetan. Hausnarketarako, festarako eta besteengana gerturatzeko egunak ditugu; elkartzunezko egunak, topaketenak, familiarekin eta lagunekin goxatzeko egunak. Dagoeneko zeruertzean ageri den urte berria ona izan dadila.

Zorionak eta Urte Berri On!

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Udalerriko ikasleei zuzendutako heziketa afektibo-sexualeko zerbitzuak jarraitu egingo du

Muskizko Udalak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako heziketa afektibo-sexualari buruzko udal programarekin jarraitzea erabaki du; izan ere, zerbitzuak oso balorazio positiboa izan du udalerriko ikastetxeetan, oinarriko sexu-heziketa, aniztasun sexualaren eta berdintasun eta hezkidetzaren arloko eskaini dituelako. Urteko 12.000 € (BEZ gabe) baino gehiagoko zenbatekoarekin, Desirak-Sexologia eta Generoko Zerbitzua izango da kudeaketaz arduratuko den enpresa.

Muskizko Udalaren heziketa afektibo-sexualari buruzko programan udalerriko ikastetxeetako 471 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte. Hauek dira xede nagusiak: sexualitatea balio positibo gisa sozializatzea, dibertsitatearen klabeak; LGTB kontzeptua hedatu, ikusgarri bihurtu eta errealitateak normalizatzea; autoestimua sustatzea eta familian komunikazioa sustatzea; errespetua, berdintasuna eta ekitatea sustatzea, eta jarrera sexistak murriztea.

Muskizko Udaleko Berdintasun eta Droga Mendekotasun Sailak urteak daramatza udalerriko ikastetxe guztietan lanean, zehatz esateko, San Juan Bautista, Muskizko Ikastola, Cantarrana Eskola, Somorrostro Trebakuntza Zentroa eta Muskiz BHIko (LHko 5. eta 6. mailak eta DBHko 2. eta 3. mailak) ikasleekin, nerabeek errespetuzko harreman osasuntsuak izan ditzaten, autoestimua indartuz eta dibertsitate sexuala, akordioa, mugak eta genero-berdintasuna positibatu, hezkuntza arloan.

Sexu Heziketako programak egungo sines-teak, mitoak eta estereotipoak zalantzan jartzen ditu dinamika ludikoen bidez; dinamika horiek hartzaileen adinaren arabera egokituta daude, eta interesa sustatzen dute, gertuko metodologia parte hartzailea erabiliz. Gainera, parte hartu duten familiek adierazi dutenez, “etxeko komunikazioa hobetu egiten da gehienetan, baita aurrez komunikazioa zegoen kasuetan ere”.



Udal frontoiak aldagela berriak ditu



Aurrekontu parte-hartzaileak, eta gizarte eta hezkuntza arloan pisu handikoak

Muskizko Udalak 2020rako aurrekontuak onartu ditu. Amaierako partida 14.014.291 eurokoa izango da, hau da, 2018koa baino handiagoa, hura 12.813.400 eurokoa izan baitzen. Berrito ere herritarrei ahotsa eman nahi izan die Udalak, parte hartzeko prozesuaren bidez, eta 260 ekarpen jaso dira; herritarren parte-hartzea igo egin da, beraz.

Aurrekontu hauek ikusirik, gastuek islatzen dute Udalak gizarte eta hezkuntza alorrean pisu handia duten aurrekontuen alde egin duela; adinekoak, gazteak eta langabetuak dira aurrekontu honen ardatzak. Partidarik handienak Kiroldegirako (1.449.000 euro), Eguneko Zentrarako (958.000 euro), enplegurako trebakuntzarako (460.000 euro) eta hezkuntza eta ikastetxeetarako (340.000 euro) dira. Azpimarratu beharrekoak dira halaber zabor bilketarako eta garbiketarako 1.056.000 euroak eta lorategietarako 525.000 euroak. Musikizko Udalak 2020rako onartutako 14.014.291 euroko aurrekontuan, azpimarratu beharra dago zenbatekorik handiena, 3.900.000 euro, Hirigintzarako izango dela, udalerrian egin beharreko hobekuntzetarako. Kultura, Kirola eta Gazteria Sailerako 3.685.000 euro izango dira.

Bestalde, Gizarte Ekintzako sailen jardueretarako 2.998.000 euro dira, eta Ingurumenetarako, berriz, 442.000 euro. Administrazioaren kudeaketarako 2.206.000 euro dira; eta aurrekontuko gainerako 771.000

euroak herritarren segurtasunerako eta Babes Zibilerako dira.

Muskiz bezalako udalerrri baten mantentze eta hobekuntza lanen ondoriozko gastuei aurre egiteko, beharrezkoa da horiek guztiak ahalbidetzeko sarrerak izatea; sarrera horiek % 10 igo dira aurrekoekin alderatuz gero, eta bide publikoko lurpearen, lurraren eta airearen okupaziotik datoz; aurrekontu osoaren % 30eko ekarpena egiten du Petronorrek, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, % 38koa.

Inbertsio berriak

Partida honekin, 13 milioi eta erdi inguru izango dira udalerria hobetzeko ohiko gastuetarako, eta inbertitzeko gaitasuna 540.000 eurokoa izango da guztira; gehienak pertsonak artatzera eta egoera klimatikoarekiko kezka bideratuko dira. Hori dela eta, 230.000 euro inguru erabiliko dira udalerria larrialdi klimatikora egokitzeko; besteak beste, Udalaren eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzearen alde egingo da; ibilgailu elektrikoentzako horniguneak jarriko dira, eta jasangarritasun legea ere bai. Bestalde, 300.000 euro erabiliko dira herritarren eskarietarako; esate baterako, Ortzeko karpa jartzeko, komun publikoak jartzeko jolaserako eremu batean, landa-bideak seinaleztatzeko eta turismoa sustatzeko. Halaber, skate pistan hobekuntzak eta bide publikoetan konponketak egingo dira, eta ondare historikoa babestuko da, besteak beste.

Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak artatutako herritar kopuruak gora egin du

Muskizko Udalak orientazio juridikoko zerbitzua esleitu du berriz ere Musikizko herritar guztientzat, Gizarte Ekintza sailak deribatuta, laneko zuzenbidean, familiakoan edo zigor-zuzenbidean aholkularitza espezializatua behar badute. Musikizko Udalak urtero 14.400 euro (BEZik gabe) inbertitzen ditu zerbitzu honetan eta babes honi beharrezko irizten dio, oinarriko gizarte zerbitzuek eman behar baitizkiete herritarrei arazo juridikoei aurre egiteko lehenengo tresnak.

Zerbitzu honetan informazio eta orientazio juridikoa eskaintzen da zuzenbide zibilean (familia, oinordekotzak, ezgaitasunak, etxe-kaleratzeak...), indarkeria matxistan, arlo penalean, lanekoan eta gizarte segurantzian, eta beste alderdi batzuetan ere bai, esaterako, diskriminazioa, DSBE, doako justizia, etab.

2018an Musikizko herritarrek 97 hitzordu eskatu zituzten Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko profesionalak arta zituzten. Horietatik 89 artatu ziren, eta, azkenean, 67 lagun inguruk behar izan dute zerbitzu hori. Jarduerarik gehienak martxoan, ekainean eta uztailan izan dira.

Artatutako 67 lagunetatik 5 21-30 urte artekoak ziren (% 7,46); 14 lagun, 31-40 urtekoak (% 20,85); 23 lagun, 41-50 urtekoak (% 34,32); 19 lagun, 51-64 urtekoak (% 28,35); eta, azkenik, 6 lagun 65 urtez gorakoak ziren (% 8,95).

Zerbitzuaren kalitatea

Udal Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren batez besteko balorazioa, hala erabiltzaileentzat nola parte hartu duten profesionalentzat, 10 puntutik 8,67 puntukoa izan da. Dena dela, ekimen honen zerbitzuaren kalitateak puntuaziorik handiena intimitatean eta konfidentzian lortu du.



2 urtekoentzako gela berria Cantarranan

Muskizko Udalak gela berri bat egokituko du 2 urteko haurrentzat, Cantarrana eskolan. Eraikin zaharra bota egingo denez institutu berria eraikitzeko, gela berri bat egokituko da, eta, hala, zentroaren eta guraso batzordearen eskari historikoari erantzungo zaio.



Zurezko hesiak konpondu

Muskizko Udala zurezko hesiak aldatzen eta berriak jartzen ari da udalerriko hainbat pasealekutan, oinezkoen segurtasuna handitzeko, hesiak narriatuta baitzeuden.

Zehazki, Autonomia kalekoak konpondu, eta berriak jarri dira ibaiako pasealekuan, bolatokiaren atzean.



Ikastolako jantokia intsonorizatu

Ikastolako jantokia intsonorizatu egingo da, zarata eta oihartzun handia baitu. Horretarako aurrekontua 8.413,30 euro gehi BEZ da, eta plaka akustikoko panelak jarriko dira zarata handia murrizteko; gainera, haurrentzako zarata-semaforo bat jarriko da.

Itsaslurreko ezpondak babesteko obrak

Joan den urrian, Muskizko Udalak Itsaslurreko ezpondak babesteko obrak hasi zituen, iaz eguraldiaren ondorioz jauzitako zonak ziurtatzeko, orduz geroztik oinezkoentzat itxita egon baita.

Obrak egiteko, Udalak 157.143,10 euroko inbertsioa egin du, eta urte berrian gozatze moduan izango gara. Jarduera nagusiak hauek izan dira: zona ezegonkorretako ezpondak berri dira hein batean, eta ainguratutako kontrahormak eraiki dira, arrokak, tuparriak eta lurra erori ez daitezten.

Era berean, estratu bigun eta gogorren arteko higaduraren ondorioz hegalean azalera-tutako kareharriak azpiberritu dira, narriatutako eremuetan sare metalikoa berriro jarri da eta sare metalikoa jarri da lehen ez zegoen tokietan.



Petronorrek esku-hartzeetarako ibilgailu bat eman dio Babes Zibilari

Muskizko Udalak eta Petronorrek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute, udalerriko herritarren segurtasuna areagotzeko; hori dela eta, Petronorrek esku-hartzeetarako ibilgailu bat eman du Babes Zibileko boluntarioen udal talderako. Gogoan izan behar da taldea erakunde laguntzailea dela, agintariek hala eskatuta jarduten duela eta bere zeregin nagusia pertsonak eta ondasunak artatzea dela. Hitzarmena 4 urterako sinatu da; horren bitartez, ibilgailua izango du Babes Zibileko Taldeak, eta, horren truke, Petronorren logotipoa izango du ibilgailu horrek.



Bi milioi euro eta erdi baino gehiago, inbertsio berrietarako

Muskizko Udalak korporazioaren inbertsio-plan berria onartu du. Programa honetako jardueren osoko aurrekontua 2.600.000 eurokoa da, Meatzariko estalkia aztertzeko, Eguneko Zentroan eta Erretiratuen Etxean berrikuntzak egiteko, ikastetxeetako hobekuntzetarako, Autonomiako jolas-parkearen estalkirako eta bide publikoan hobekuntzak egiteko, besteak beste; partida bat Santeliceseko auzotarrek eskatutako hobekuntzak egiteko izango da.

Muskizko korporazioak taxutu duen inbertsio-planaren xedea da herritarren eskariei erantzuteko jardueri aurrekontuko partidak zuzkitzea, auzotarren beharrak betetzeko. Herritarren partaidetza prozesuan jaso ziren proposamenak, eta 260 ekarpen egon ziren; urte osoan dauzkagun bideetatik ere iritsi dira proposamenak.

Partida ekonomiko garrantzitsua bideratuko da Eguneko Zentroa eta Erretiratuen Etxea hobetzeko; guztira 78.000 euroko inbertsioa izango da, eta adinekoen zentroan jarriko den karpa nabarmentzen da.

Beste puntu garrantzitsu bi Meatzarin estalki bat sortzeko egingo den azterketa (100.000 euroko aurrekontua) eta Autonomiako jolas-parkeko estalia (225.000) dira. Era berean, ingurumena dugu ardatz, eta konpostagailuak erosi dira (12.941,81 euro).

Dena dela, Udaleko osoko bilkurak onartutako inbertsio-planak berriazko partidak ere baditu kirol-instalazioak hobetzeko, bideetako seinaleetarako, ondarea berreskuratzeko edo berritzeko, eta hiriko altzarietarako.



Hobekuntzak auzoetan

Inbertsio-planean garrantzi ekonomikoa duen partidetakoa bat da, eta bide publikoak zaharbertzeko, urbanizazio eta auzoetan hobekuntzak egiteko, eta ur-saneamendu eta -hornidurarako da. Adibidez, San Julianeko errepidea asfaltatzeko (281.000 euro), Cobarón auzoko aparkalekuetarako (26.687 euro) edo Carrascal eta Pobeñako saneamendurako (370.000 euro).

Bestalde, Muskizko Udalak udal kirol-instalazioak hobetzeko proiektuak ere baditu: frontoia margotu, skate pistan hobekuntzak egin, bizikletak garbitzeko toki bat, eskubaloiko ate miniak edo markagailu elektronikoa bat El Malecónen. Hezkuntza Saileko ekimenen barruan 79.100 euroko inbertsio bat nabarmendu behar da; Ikastolan eta Cantarranan 2 urtekoentzako egingo den gela eta oro har egingo diren hobekuntzak daude atal honetan.

Beste jarduera batzuk

Gainera, inbertsio-plan honetan, partida hazi egin da liburutegirako liburuak erosteko, berez garbitzen den komun bat jartzeko Autonomiako parkean, Txakur Kan zona bat jartzeko, zarataren azterketa egiteko eta sustapen turistikorako plana egiteko.

M MUSKIZ KULTURA AGENDA

22 OTSAILA

Inauteriak

Mozorro-lehiaketa

15 MARTXOA
MEATZARI ARETOA

“The Gagfather”

Yllana konpainiaren komedia



4 APIRILA
MEATZARI ARETOA

“Deje su mensaje después de la señal”

Tanttaka Teatroa





Elkarrizketa



Kirol minoritarioa, baina izarra Muskizen

Muskizen kirol-elkarte ugari dago, eta horietako bat dugu Muskizko Otsok Tennis Elkarte. Gaur egun, tenis-pista berriak eta estalia ditu. Elkarteak 20 urte baino gehiago ditu, eta 40 ikasle inguru. Batzuk Muskizkoak bertakoak dira, baina inguruko herrietatik ere etortzen dira. Tenisa dugu udalerriko kirol izarretako bat. Ismael Macarrón Elkarte presidentea eta monitora da, eta kirol honen berri eman digu.

G/ Noiz sortu zen Muskizko tenis-elkartea eta zenbat ikasle ditu?

E/ Muskizko Otsok Tennis Kirol Elkarte 1999an sortu zen. Tenis-eskolan 40 ikasle inguru daude. Gazteenak bost urterekin hasten dira. Baina helduentzako ez dago adin-mugarik. Gaur egun, ikaslerik adinekoenak 60 urte inguru ditu.

G/ Nola eboluzionatu du kirol honek Muskizko udalerrian?

“ Estalitako pistei esker, ikasleek ez dute entrenamendurik galduko

E/ 1997an hasi nintzen tenis-eskolan lanean, eta 1999an sortu zen Elkarte; urte hauetan 400 ikasle baino gehiago igaro dira, batzuk Muskizkoak eta beste batzuk inguruetako herrietakoak: Gallarta, Zierbena, Sopuerta, Galdames... Egia da Muskizen askoz lehenagotik zegoela tenisean ibiltzen zena zale talde bat.

Oker ez banago, hasieran Cantarranasen eta gero El Cerro de la Llosa auzoan. Are gehiago, El Cerro de la Llosako kultur elkartearen anagrama teniseko erraketa eta pilota bat dira. Eskerrak eman nahi dizkiegu eman diguten laguntzagatik, izan ere, auzoko tenis-pista utzi digute entrenatzeko, obrek iraun duten hilabete hauetan.

G/ Kirol honek gero eta protagonismo handiagoa du?

E/ Nire ustez, bilakaera oso ona izan du. Tenisa probatu nahi duten guztiei gerturatu

zaie, tenisa masa-kirola ez den eskualdean. Oinarrizko funtsak erakutsi zaizkie, jolas-teko teknikak eta taktikak, arauak, ohitura osasuntsuak, kiroleko begiramenezko jokabidea... Ikasle batzuentzat zaletasuna da, baina badira lehiaketetan parte hartu dutenak ere. Eta uste dut ikasleentzat atsegin eta dibertigarria bihurtu dugula.

G/ Pista estali berriak dituzue orain; zer ondorio izango ditu horrek?

E/ Pista estaliak izateari esker, tenis-eskolako programa arazorik gabe bete ahal izango dugu, eta ikasleek ez dute entrenamendu bat bera ere galduko eguraldi txarra dela-eta.

Dena dela, batez ere, ondorio nagusia ikasleak ez bustitzea izango da. Hogei urtez baino gehiagoz ikasleak egunero etorri dira, euria, haizea, hotza, kazkabarra, elurra... izan arren.



Muskizek aire libreko igerilekuak izango ditu 2020ko udan